


KULTURA ELGOIBARKO EUSKARA IKERKETA-LANAREN AURKEZPENA
GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN · KIROLA SAN ANTON ETA LAU ETA ERDIKO IRABAZLEAK

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2004ko urtarrilaren 23a/XI. urtea/473. zkia

Barren

ASTEKARIA



J.M. Etxaniz, seiluetan jakituna

UDAL
EUSKALTEGIAK



Ordenagailu bidez ere landu dezakezu orain!



Euskara ikasi edo hobetu nahi baduzu,
zatoz Udal Euskaltegira

Talde eta ordu hauetan eman dezakezu izena:

Behe maila: 09-15 - 11:15 / 16:00 - 18:00 / 20:00 - 22:00

Erdi maila: 14:45 - 16:15

E.G.A.: 09:00 - 11:00 eta 14:30 - 16:30

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea

Nafarroa Enparantza 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel./Faxa: 943 74 27 31 • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Nafarren ahotsa

Azkenean, Nafarroako Gobernuak Itoitz-ko urtegia urez betetzeko agindua betearazi du. Alferrik izan dira urteetan ‘solidarioek’ egin dituzten protesta ekintzak, manifestazioak eta abarrak. Alfer-alferrik. Astelehenean, Miguel Sanz-ek erabakiaren berri ematen zuen bitartean, bi emakumek, bularra bistan zutela, garrasika adierazi zuten erabakiak herritar askoren artean sortu duen sumina. Haserrea, nazka, nahigabea, tristura. Nafarroan, Miguel Sanz-en gobernuak uretan ito ditu herritarren ezta irratien ahotsak. Euskararen ahotsa ere, behin eta berriz zapaltzen eta isilarazten saiatu da. Euskararekiko duen jarrera, lotsagabea da, mingarria. Euren burua euskalduntzat duten nafarrak bigarren mailako herritar bihurtu ditu. Europatik ere, esan dute Nafarroako Gobernuaren jokabidea atzerapauso ikaragarria dela, baina UPNko agintariak gorra dira, itsuak, eta gainera, lider eskasak. Orain, Nafarroako zirko politikoan gladiadore berri bat agertu da UPNren lehoien aurka borrokatzeko prest. ‘Nafarroa Bai’. Uxue Barkos kazetaria da zerrendaburua, eta lanbide eta lantoki bera izan dugunez gaur arte, atentzio berezia eman zidan taldeko buru izendatu izanak. Radio Euskadin egin zioten elkarrizketan entzun nion euskaldun nafarren ahotsa ordezkatu nahi dutela Madrilan, Nafarroan euskaldun eta nafar sentitzen diren pertsona asko dagoelako, ez halaberrez abertzaleak. Eta bazutela amankomunean bi ezaugarri: euskal sena eta ikuspegi progresista. UPNren gobernuak hiztegia sekula agertu ez diren bi kontzeptu.

Ainhoa Lodoso



Benetako izarrak zeruan daude

Andy Warholek zioen bezala, pertsona bakoitzak hamar segundoko ospea izango du bere bizitzan. Baina batzuei hamar segundoak gutxi iruditu eta gehiago behar dute ospetsu sentitzeko. Eta are gehiago, ez dira horretaz nazkatzen. Ekin eta ekin dihardute bere nahian. Arazo familiar bat, haundunaldi faltsu bat, koinatuak eginiko lapurreta, bortxaketak, eta batek hau dio eta besteak hori dio jokoan sartzen dira.

Ikuslegoaren aurrean zeinek gehiago iraun lehiaketako partaideak direla dirudite. Eta larriena, telebistan agertzeari garrantzirik ematen ez diotela esaten dutela lasai asko! Asteak eta asteak iraun ditzakete kontu kontari, gezur bat bestearen atzetik botaz. Bejon diela!

Telebistek beren aldetik ez diote onurarik egiten ikuslegoari, ezta izar famatu hauei ere. Ez dute irizpiderik albisteak zein pertsonaiak aukeratzekoan. Berdin zaie eta gainera programa batzuetan ordainduz gero, langile profesionalak sentitzen dira eta benetan, lotsagarria izaten da emaitza. Eta behin horrelako pastela dastatu ondoren ezinezkoa egiten zaie gehiago ez eskatzea. Ez al dira asetzen? Diru hori hain erraz lortu ondoren, ez nau harritzen tipoa agoantatzeak. Azken finean, hori da beraien lanik gogorrena, tipoa agoantatzea, nahiz eta ekaitzik bortitzena gainera erori, edo hori da beraiek uste dutena.

Baina benetako izarrak zeruan daude, eta zelako plazerra ematen duen isiltasunean ikusteak.

Jokin Martinez

asteke notiziario

Kexak5

motZ MotZ.....6

gehigarria11

kiRolak20

aGenda24

Atal hauek ez dira BARENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratu dira eta txandatan txandatan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugun kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

PARROKIKO KARITASEK ELGOIBARKO HERRIARI ESKER ONEZ

Elgoibarko Parrokiko Karitasek, eskerrik beroenak eman nahi dizkie, urtean zehar eta bereziki Gabonetako kanpainan lagundu duten guztiei, hala nola Elgoibarko Ikastola, Pilar Ikastetxea, hainbat enpresa eta famili guztiei. Mila esker denoi.

Parrokiko Karitas

ASTEKARIA BARREN

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli URIGUEN KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurene Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



Urruzunoren begi ezkutua

🎵 Euskalduna naiz eta harro nago!!!



Elgoibartarrok, ba al dakigu batera kantatzen???

🎵 Zenbat gara, 1, 4,3,5,7???

🎵 bat, bat, bat, bat, 1, 1, 1, 1,

1, 1, bat ta danok batera; bi, bi,

bi, ez gara ondo ibili, ez gara

ondo ibili!!!; hiru, hiru, hiru

golkoa bete diru, golkoa bete diru;

lau, lau, lau MARTXOAK 14!!!

🎵 Zazpiak 1 besarka, lot gaitezen

elkarri. Bat bakarra, gai bagara, bat eta

bakarra. Bat baikara. Bat al gara???

baldin eta bagara, guztiok

pauso bana emanda, elkarrekin, batera,

MARTXOAK 14an danok toki berera, bozkatzera joango gera.


🎵 hartu hiiiiiiiiitza!!!!!!! eman ezazu, iritzia!!!

Herri bat bagera, hobe bat eginik, batera, zerrenda berera.

Amaia Urzelai

ESKERTZA

2004ko urtarrilaren 20an, 77 urte zituela hil zen PEDRO JOSE ARRIOLA ETXANIZen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





◆ **Urasandiko bizilagun talde batek esan digunez, Madalako errotonda berriak arazoak besterik ez dizkie sortzen auzora sartzeko orduan:** “Eibartik etortzerakoan, debekatu egin dute Pilar Ikastetxeko sarreratik gora igotzea, eta Madalako errotondaraino joan behar gara. Suerte apur batekin, semaforoa berde egongo da, baina kasurik okerreanean bi semaforo gorri itxoin behar izaten ditugu. Gero errotondatik gora igo, edo berriz semaforoa itxoin eta Pilarreko sarrerara bueltatuz igo gaitezke etxera. Zertarako hainbeste buelta? Ez al da errazagoa Pilarretik gora lehen bezala igo ahal izatea? Obrak eta aldaketak hoberako egin behar dira, eta Madalako errotonda honekin ez dute asmatu”.



◆ Erretxindi auzoko bizilagun batek ondorengo kexa adierazi digu: **“Erretxindin ez dago zabor kontenedore horirik. Alde guztietatik zaborra birziklatu behar dela esaten digute, eta ez dute erraztasunik jartzen. Albitxuriko industrigunean kontenedore hori mordo dago,** eta Erretxindin bat ere ez. Horietako bat gure auzora ekartzea ez da horrenbesteko lana izango. Guretzat, lan handiagoa da zaborra bereiztu, eta gero San Roke beharaino eraman beharra”.



◆ Emakume batek **ibaian lanean ari diren langileak txalotu nahi ditu:** “Erreka benetan txukuntzen ari dira. Arrantzaleen pasealekua egiteko horma guztiak txukundu dituzte, eta oso dotore jartzen ari dira. Obra guztia amaitzen dutenean ibai ederra izango dugu. Are gehiago, depuradorak bere lana ondo betetzen badu eta ibaia gutxiago zikitzen baditugu aurrerantzean”.

◆ Herritar batek, **Udala txalotu nahi du, 2004. urteko egutegia benetan polita eta paper birziklatuan atara dutelako:** “Oso polita da aurtengo egutegia egiteko erabili duten argazkia, eta gainera paper birziklatuan atara dute. Gainera, herritarren artean banatzen dute, eta hori oso ondo dago. Eskerrik asko, eta jarraitu horrela”.



Debabarreneko landa garapen programa aurkeztu zuten Kultur Etxean

18 topaketa ospatuko dira guztira EAEko eskualde desberdinetan, landa garapena bultzatzeko helburuarekin

Landa Garapena bultzatzuzure eskualdean lemapean, Landa Garapen Programei buruzko Jardunaldi teknikoen 9. topaketak ospatu ziren Elgoibarren asteazkenean, hilaren 21ean eta atzo, osteguna, hilak 22. Guztira 18 topaketa ospatuko dira Euskal Herriko eskualde desberdinetan. Topaketa hauen helburua, landa ingurunea bultzatzeko tresnak ezagutzera ematea da, besteak beste, Landa Garapenerako Legea; Landa Garapen Elkartek; Landaberri, Landagipuzkoa...

Bestalde, Debabarrenan garatuko den ekintza planaren barnean kontuan eduki behar diren esparru desberdinak aipatu ziren: heziketa eta kultura, osasuna eta gizarte zerbitzuak, azpiegiturak eta etxebizitzak eta abar...



Agurtzane Etxaniz, Migel Angel Mujika eta Juan Carlos Zuloaga programaren aurkezpenean.

Debabarrenerako landa garapen proiektuaren aurkezpenean, Juan Carlos Zuloaga, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako zuzendaria, Jesús Argiñarena, Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departa-

mentuko zuzendaria, Migel Angel Mujika, Elgoibarko alkate ordea eta Agurtzane Etxaniz, DEBEMENgo (Debabarreneko Landa Garapen Elkartea) Gerentea izan ziren.

Landa garapenerako programak

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Foru Aldundietako Nekazaritza Departamentuek eta EUDELEk, Landa Garapenerako Elkartekin eta Mendikoi elkartearekin batera jarri dituzte martxak jardunaldi hauek, Euskal Herriko hiru lurralde historikoetan landa garapenari bultzada berria emateko asmoz. Iazko azaroan hasita, datorren apirilera arte luzatuko dira topaketa hauek.



Danobatek 2003ko Fiat Auto kalitate saria jaso du

Joan zen azaroan eskaini zituzten Turinen (Italian) Fiat Auto enpresaren kalitate sariak. Azken edizio honetan, Danobat izan da makina erremintaren alorrean kalitate saria jaso duena. Modu honetan Danobatek Italiar ekoizlearen hainbat instalaziotan eginiko lana saritu dute, batez ere, Brasil eta Poloniako birabarki edo "zigueñal" alorrean.

Etxegiña taldea otsailaren 7an aterako da Santa Eskean

Santa Eskeko Etxegiña Taldea, ohiturari jarraituz, otsailaren 7an, zapatuan, aterako da Elgoibarko kaleetan eta auzoetan zehar koplak kantatzera. Goizeko 9:00etan aterako dira Bolatokitik (San Bartolome parrokiaren ondoko parkea) eta Elgoibarko kale eta auzoak kantuan igaro ostean, Errosario kaleko Amabirjinari salbea abestuko diote. Eguerdialdera ondo merezitako bazkaria izango dute Baltasar Elkartean.

Urtero legez, Santa eskea baino lehen, bi entsegu egingo dituztela jakinarazi nahi dute: otsailak 3 (martitzena) eta otsailak 5 (eguen) izango dira entsegu egunak,



iluntzeko 20:00etatik 21:00etara, Kultur Etxeko Sotoan. Entseguetan edota otsailaren 7ko ekitaldian parte hartzeko jendea animatu nahi dute Etxegina taldekoek eta herritar guztiei luzatzen diete parte hartzeko gonbidapena, ohitura zahar honek urte luzez jarraitzeko modua izan dezan.

Abiadura handiko mekanizazioa jarri dute martxan IMHn



Makina Erremintaren Institutuak abiadura handiko makina berria jarri du martxan. Proiektuaren helburuetako bat dokumentazio teknikoa sortu eta hezkuntza sisteman sartzeko irakasleak prestatzea da. Proiektuak, bestalde, ikastetxe eta enpresen arteko zubi bihurtzea nahi du.

Gure ingurune industrialean abiadura handiko mekanizazioa garatzen ari da, batez ere, moldearen arloan aplikatua. Merkatuan indar handiz ari da sartzen teknologia berri hau, honen bidez, moldeak mekanizatzeke denbora murriztu egiten da.

IMHk ondorengoa lortu nahi du proiektu honekin: abiadura handiko mekanizazioaren estrategiak barneratu, gero ikasleei eta enpresei irakasteko, CAM sistema ahaltsua erabili, mekanizazio honetan erabiltzen diren erremintei buruzko ezagutza zabala izan, eta azkenik, enpresei zerbitzu teknikoa eskaintzea.


2003. urtean Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzak martxan jarritako proiektu honetan, Euskadiko beste Lanbide Heziketako 6 ikastetxek parte hartzen dute, Elgoibarko IMHrekin batera.

Fernando Bert Parisko Fresnes kartzelara aldatu dute

Fernando Bert preso elgoibartarra Parisko Fresnes kartzelara eman zuten joan zen abenduaren 24an. Goiz baten, kartzelako patioa atera zen eta zerbait arraroa sumatu zuela kontatu digute. Xaboi zuri bat zeukan, irudi marroi batekin, eta kartzelan lehergailuren bat zela pentsatu zuten. Lau egun isolatuta eduki ostean, bere urtebetetze egunean, hau da, abenduaren 24an, kartzelaz aldatu zuten. Parisko Fresnes espetxera eraman zuten. Erregimen

Militarreko espetxea da Fresnes, Espainia eta Frantziako espetheen artean gogorrenetarikoa. Herriko lagunek, jendea animatu nahi dute Fernando Bert elgoibartarrari gutunak idaztera.

Fernando Bert Arretxea
D2 187 911192
Maison D'Arret Fresnes
3 ALLEE DES THUYAS
94261 Fresnes Cedex
Frantzia



Pilar Ikastetxean Gandhiren hilketaren eguna gogoratuko dute

Gandhiren hilketaren eguna gogoratu, "Indarkeria eza eta bakearen eguna" ospatuko dute Pilar ikastetxean datorren ostiralean, urtarrilaren 30ean. Aste osoan zehar ekintza desberdinak

egingo dituzte gela bakoitzean, eta ostiralean, ikastetxe osoko ekitaldia izango da. Arratsaldeko 16:00etan ikastetxeko patioan elkartuko dira ikasle eta irakasle guztiak, bakea aldarrikatzeko.

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko 4 sari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Jose Urbietta, Petra Arana, Elena Rodriguez eta Unai Diez izan dira irabazleak. Saria erosketan txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi afari zozketatuko dira.





JOSE MARI ETXANIZ

ALTZOLATARREN DORRETXEA FILATELIA ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Seiluak kolekzionatzeko pazientzia handia behar da”

Jose Mari Etzanizekin egon garela esanez gero, batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari ea gizon hori nor den. “El Sabio” esanda ordea, ez dago dudarik. Ez digu argitu zergatik deitzen dioten horrela, baina seguru, bere jakituria handiarekin zenikusia duela. Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkartearen presidentea da 1991. urteaz geroztik. Urtero bezala, San Anton Egunean inauguratu zuten seilu erakusketa Kultur Etxean, eta urtarrilaren 25era arte egongo da ikusgai. Aurtengoan Parrokiako Jaiotzaren 25. urteurrenari dedikatu diote erakusketa. 90 bildumak osatzen dute erakusketa, eta beraien artean, Jose Mari Etzanizen bilduma bat aurkituko dugu: “Austria Segunda Republica”.

■ Noiz hasi zinen seiluak kolekzionatzen?

Umetan hasi nintzen, garai hartako ume guztiak bezala, ni ere seiluak kolekzionatzen hasi nintzen. Baina ez neukan siluetan gastatzeko dirurik, eta 15 urte inguru nituela seiluak kolekzionatzeari laga egin nion. 1989an Koroarekin Vienara joan nintzen, eta orduan berriz ekin nion nire zaletasunari. Musikari dagokionez, Austria oso estatu aberatsa da, eta musika alorreko seiluak kolekzionatzen hasi nintzen.

■ Pertsona filatelikoak zein ezaugarri ditu?

Seiluak kolekzionatzeko pazientzia handia eta denbora libredu edukitzea, eta mundu hau gustatzea ezinbestekoak dira.

■ Nola lortzen dira seiluak?

Gehienak erosi egiten dira. Gaur egun, korreo elektronikoa dela-eta, oso zaila da eskutitz bidez seiluak lortzea.

■ Zenbat seilu izango dituzu etxean gutxi gora behera?

30.000 inguru, baina kantitatea ez da garrantzitsua. Seiluak ondo ordenatuta eta sailkatuta eduki behar dira. Bildumak osatzea da garrantzitsua, eta hori oso zaila da.

■ Zaletasun garestia al da?

Asko gustatzen zaionarentzat ez da garestia. Nik serie baten truke 25.000 pezeta inguru ordaindu nituen, baina duela gutxi, errore bat zeukan seilu eta eskutitz batengatik milioi bat euro ordaindu direla irakurri nuen.

■ Nola ezartzen da seilu baten balioa?

Erroreak diren seiluak dira kolekzionistezako balore handiena dutenak. 1851n bi errealeko seilu gorriak atera zituzten Espainian,

eta sei errealeko seilu urdinak. Baina serie urdinaren barruan, bi errealeko bat sartu zen. Bi errealeko seilu urdina errore bat da, eta horren truke diru asko ordaindu daiteke. Seilu horietako bat Museo Britaniarrean dago, eta egunen batean subastara aterako balitz, milioi bat eurotik gora ordainduko lituzkete bere trukean. Seilu arraroenak dira baliotsuenak.

“Seilu arraroenak dira baliotsuenak”

■ Aurtengoan jaiotzari eskainiko diotuzue erakusketa. Nola aukeratu duzue hori?

Urte bakoitzean herrian destakatzeko dagoen elkarteari eskaintzen diogu erakusketa. Parrokiako jaiotza mekanikoak 25 urte beteko ditu aurtengoa, eta beraien lana eskertzeko modu bat da.

■ Lan handia izan al da bilduma hau osatzea?

Gaur egungo seiluak erraz lortzen dira, baina zaharrak lortzea oso zaila da. Bilduma bat osorik amaitzeko seilu asko behar dira, eta lan handia ematen du.

■ Elgoibartar bakarra izango zara erakusketan, seiluetarako zaletasun gutxi al dago Elgoibarren?

Elkartean 60 bazkide inguru gaude. Batzuk kanpotarrak dira, baina elgoibartarrak asko gara. Gazteak falta zaizkigu. Gaur egun seiluak garesti daude, eta gazteek ezin dituzte kolekzionatu.

■ Datorren urtean 25 urte beteko dituzue erakusketa honek. Gogoratzen al zara nola hasi zineten?

Hasieran Eibarren zegoen filatelia elkartearen Elgoibartarrak gero eta gehiago ginenez, Elgoibarren sortu genuen geure elkartearen, eta San Anton jaietan erakusketa egiten hasi ginen. Negatiko modu sinplean ospatuko nuke 25. urteurrena, baina elkarteok zerbait berezia egitea nahi dute. Hala ere, oraindik urtebete falta da, eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

“Seilu zaharrak dira lortzeko zailenak”

Eduardo Arrillagaren bi argazki Luis Valtueña Nazioarteko Argazki Lehiaketan Sarituak izan dira

Intermon Oxfam erakundearentzat Nicaraguan atera zituen argazkiak

Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarrak Matagalpan (Nicaragua) atera zituen bi argazki VII. Luis Valtueña Nazioarteko Argazkilaritza Lehiaketan aukeratuak izan dira.

Medicos del Mundo erakundeak Madrilan antolatzen duen ospe handiko lehiaketa izanik, Espainia eta Europa osoko argazkilari garrantzitsuek hartu dute parte. Guztira 14 argazkilariren lanak aukeratu dituzte eta European zehar egingo den erakusketa ibiltaria osatuko dute argazki aukeratuekin. Lehiaketak gizateriaren zati handi batek pairatzen duen pobrezia egoera salatzea du helburutzat.

Javier Teniente espainiarrak Irakeko ospitale batean ateratako argazkiak merezi izan du lehen saria epaimahaiaren iritzi. Aukeratuak izan diren Eduardo Arrillagaren bi argazkiak Nicaraguan ateratakoak dira. Intermon Oxfam Gobernu Kanpoko Erakundearen argazkilari gisa joan zen elgoibartarra Ertamerikako herrialdera:



Edu Arrillaga

Kanpoko Erakundeak munduko zonalde txiro honek bizi duen egunez egungo errealitatea islatzeko deitu ninduen eta baita beraiek orain arte egindako lanaren berri emateko ere, jendeak ikus zezan dirulaguntzak nora eta nola bideratzen diren.

Aukeratu duten lehen argazkian, "Esclavos del vertedero" izenekoa, adin guztietako jende taldea ageri da zabortege bateko lurra miatzen. "Cadena para dos mundos" izeneko argazkian, berriz, kalean bizi diren hiru haur elektrotresna denda barruko telebistei begira ageri dira".

Erakusketa Iruñean


Bestalde, Arrillagak Mugarik Gabeko Albatariak erakundearentzako argazkiak ateratzen ere ibili da Guatemalan, Bolivan, Dominikar Errepublikan eta Haitin. Bertan ateratako argazkiekin erakusketa bat antolatu du erakundeak, eta Iruñeako Descalzos aretoan (Descalzos kalea, 16) izango da ikusgai otsailaren 15era bitartean.

"Esclavos del vertedero" argazkia.

"Matagalpan hiri txiro eta jendetsuan izan nintzen. Lehendik ere gabezia asko zituzten, baina Mitch urakanak egoera okerrago bihurtu zuen. Intermon Oxfam Gobernu

Elgoibarko euskararen gaineko ikerketa-lanaren aurkezpena egingo da urtarrilaren 28an, asteazkenean, Kultur Etxean

J.M. Makazaga Filologo elgoibartarrak zuzendu du ikerketa



Jesus Mari Makazaga, EHUko Euskal Filologia irakaslea da Gasteizen

"Elgoibarko euskara, galtzen utzi behar ez dugun altxorra" ikerketa-lanaren aurkezpena egingo dute Elgoibarko Udalak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eta Jesus Mari Makazagak, lanaren babesleek eta egileek alegia. Aurkezpena urtarrilaren 28an, eguaztenean, izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Elgoibarko euskararekiko interesa edo kezka duten herritar guztiak daude aurkezpenera gonbidatuta, Elgoibarko euskararekin sensibilizatuta daudenentzat prestatutako aurkezpena baita. Izan ere, aurkezpena egin ostean Elgoibarko berbetari eragingo dion batzordea antolatzeko asmoa dago. Lana amaituta dago jadanik, baina momentuz ez dago jasotzerik. Liburu batean bildu eta ekainean

argitaratzeko asmoa dago. Liburua argitaratu bitartean, martxoan hasiko den ikastaro bat antolatuko dute.

Jesus Mari Makazaga izan da ikerketa-lanaren zuzendaria, baina Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte eta Elgoibarko Udalaren laguntza izan ditu elkarrizketa, grabazio, transkripzio eta bestelakoak egiteko eta baita finantziazioan ere, lan honek kostu handia izan baitu, bai lanari dagokionez eta baita diruari dagokionez ere.

Aurkezpenean lan honen zergatiak azalduko ditu Makazagak, lan metodologia azalduz eta baita zer eta nola bildu den ere. Azkenik, aurrera begira dauden asmoen berri emango dute Udalak eta Elgoibarko Izarrak, aurtengo lan plana, alegia.

ZER IRITZI DUZU MADALAKO ERROTONDA BERRIAZ?



ANTONIO HERNANDEZ

43 urte, txurreroa

Nire ustez lehen baino hobeto dago. Urtean bi edo hiru aldiz etortzen naiz Elgoibarrera, eta aurtengoan ez dut zubian zain egon beharrik izan. Obra hoberako izan da.

LOREA IRIONDO

43 urte, erizain laguntzailea

Gutxitan pasau naiz hortik, ta ez dakit zer esan. Errotonda arrarua da, eta hasieran nahiko konplikaua. Ni behintzat konfunditxu nitzan behin. Ohitxu in biharko gera.



MIKEL EGIA

25 urte, mekanikoa

Txapuza bat da. Errotonda borobila hobia izango litzake. Lehen trafikorik ez zauanian segitxuan pasatzen zinan, baina oin, Mendarotik etortzerakuan bi semaforo itxoin bihar dia.

JESUS ANJEL MARTIN

33 urte, tornugilea

Ez dago ondo. Urasandira igotzeko semaforoa gorri egoteak ez dauka zentzurik. Errotonda borobila egiteko nahikoa leku dagoela dirudi, eta trafikoa asko arinduko litzateke.



LUCIA ELORZA

67 urte, etxekoandrea

Kotxientzako gaizki geratu da. Ez da denborarik aurrezten, beti tokatzen baitxa semafororen bat gorri. Oinezkuentzako bidia ere gaisetik edo azpitxik ein bihar zeben.

MONTSE CERREJON

37 urte, dendaria

Oraindik zubitik irtetea ez zait tokatu, baina sartzeko hobeto dago. Denborarik ez da aurrezten, baina orain bakoitzaren txanda argi dago. Ordena lortu da.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Gazti BARRREN



G A Z T E G E H I G A R R I A . 2004ko urtarrilaren 23a. XII urteq/473. zkia



Nadia Nuñez

Dantzari nekaezina

"THE DEEPEST END"

GOV'T MULE

Duela lau urte Allen Woody baxujole handia hil zenetik, Warren Haynes eta Matt Abts taldekideek hainbat proiektu burutu dituzte hau omentzeko. Lehen ekimenaren berri zutabe honetan eman genizuen, "The deep end" izeneko diskoaren bi aleetan taldeak hainbat baxujole bildu zituen: Roger Glover, Jack Bruce eta John Entwistle, esaterako. Estudioko bi disko bikain hauen grabaketaren nondik norakoak DVD-an gozatzeko aukera eskaini ziguten gero.

Orain museoko pieza bailitzan gordetzeko moduko materiala argitaratu du talde estatu batuarrak. "The deepest end" Allen Woody-ren omenezko ekimenen azken emaitza da, New Orleans-eko The Saenger Theatre antzokian grabaturiko kontzertua. Lan berriak zuzenekoaren bi CD eta DVDa biltzen ditu. Kontzertuan "The deep end"-eko musikariak eta beste hainbat gonbidatu bildu zituen Gov't Mulek: Dave Schools, Victor Wooten, Bela Fleck eta Jason Newsted, besteak beste. Entsaio gehienak soinu frogetan egin zituzten eta musikari askok gau hartan ezagutu zuten elkar. Gov't Mule-en erreperitorio zabala eskaini zuten 22:10etik 3:50era iraun zuen emanaldi izugarrian, baita hainbat bertsio ere, "Voodoo Chile" (Jimmy Hendrix), "War Pigs" (Black Sabbath)... Bi diskoak entzutea gozamen bat bada, DVDa ikustea zer esanik ez. Dударik gabe, izugarritzko harri bitxia.

Ion Gurrutxaga



E
N
T
Z
U
N

NADIA NUÑEZ, dantzaria

"Dantzan izan ditzakedan galduta sentsibilitatearekin gainditzen"

ETBKO DANTZAKI LEHIAKETAREN IRABAZLEA DUGU NADIA NUÑEZ. 3 URTE BAKARRIK DARAMATZA SALTSA IKASTEN, BAINA ZIUR URTE BATZUEN BURUAN BERE IZENA DANTZARI OSPETSUENEN ARTEAN IKUSIKO DUGULA. IRRIBARREA EZPAINETATIK KENDU GABE ERANTZUN DITU GALDERA GUZTIAK, ANTZEMATEN DA DANTZAZ HITZ EGITEA GOGOKO DUELA. 22 URTE BESTERIK EZ DITU BAINA DANTZA MUNDUAN EZAGUNA EGITEN HASIA DA DAGOENEKO.

Nola hasi zinen dantzan?

Betidanik gustatu izan zait. Txikitik amak ikasteko esaten zidan baina nik dantza egitea besterik ez nuen nahi. Orain dela 3 urte polikiroldegian saltsa ikasten hasi nintzen, probatzen. Irakasleak gogoz hartzeko esan zidan dantzarako kualitate egokiak nituela esanez. Horrek benetan motibatu ninduen eta Madrilerara joaten hasi nintzen saltsako irakaslearekin, beste irakasle baten klaseak hartuz. Poliki-poliki dantzaren munduan sartzen hasi nintzen.

Saltsa bakarrik ?

Hasieran saltsa bakarrik, baina etxean dantza modernoa ere egin izan dut. Dena den, nire kontu trebatu nintzenez, ez nekien ondo egiten nuen edo ez. Baina azkenean saltsako irak

asleak animatu ninduen eta bideo zinta bat grabatu nuen. Hau, Madrileko Toni Escartin dantza irakasleari erakutsi nion., UPADANCE taldeaz arduratzen dena.

Eta UPADANCE bezalako kasting batetara ez zara inoiz aurkeztu?

Ez, akademia baten egon behar zara aukeraren bat izateko. Akademia hauek beraie dantzari trebeenak bidaltzen dituzte eta bere kontu dihoan pertsona batek ez du inolako aukerarik. Hala ere, Toni Escartinek esan zidan harrigarria zela 3urte dantzan zeramatzan neska batek horrelako trebetasuna izatea. Ez daukat bizitza osoan dantzan ibili denaren teknika baina bai sentikortasun handia. Orain hilerio joaten naiz Madrilerara eta asko ikasten ari naiz.




bezia teknikoak ditut"

Dantza: hobby ala lanbide?

Hasieran hobby moduan hartzen nuen, baina orain atek zabaltzen ari zaizkit eta dantza nire lanbidea izatea nahi dut.

Eta nolakoak dira entrenamenduak?

Etxean koreografiak prestatzen ditut eta irakasleari erakusten dizkiot ondoren, bere iritzia eman diezadan. Asteazken zehar etxean aritzen naiz eta asteburuetan irakaslearekin kiroldegira joaten naiz. Han, koreografiak zintan grabatu eta akatsak aztertzen ditugu. Asteazken zehar ere saltsa klaseetara joaten naiz entrenamendu bezala.



Zein lehiaketa irabazi dituzu?

Hiru hilabete klaseetan neramatzanean Ermuara joan nintzen dantza lehiaketa bat ikustera eta eza gutzen ez nuen mutil batekin parte hartu nuen. Ez geneukan koreografiarik prestatuta baina lehenengo postuan berdindu genuen.

Gero, dantzako maratoin parte hartu nuen eta 11 orduz aritu nintzen dantzan, laugarren postua lortuz. Eta azkenik ETBko "DANTZAKI" lehiaketa irabazi nuen, nire dantzarako bikotearekin 2 aldiz bakarrik entseatu ostean.

Bakarrik ala bikoteka dantza egitea nahiago duzu?

Bikoteka dantzatu nuenean ETBko lehiaketa irabazi nuen eta polita izan zen, baina bakarka dantzatzeko segurtasuna ematen dizu, ez baituzu beste pertsonarengan pentasatu behar. Entrenatzea ere errazago da bakarka, norberak bere ordutegi partikularra baitu.

Upa dance titulua duen dantza ikastaroa emango duzu.


Bai, dantza modernoan oinarritutakoa da. Elgoibarren sekula ez da horrelako aukerarik egon. 15-20 minutu beroketa izango dira elastikotasuna lortzeko, ondoren mugimenduak egiten ikastea eta azkenik, mugimenduen konbinazioa, koordinazioa landuz. Hau ikastaroan koreografia errazak egingo ditugu.

"MANHATTAN TRANSFER"

DOS PASSOS

John Dos Passos estatubatuarra "Belaunaldi galdua" deituriko literatur taldeko kidea izan zen, besteak beste Ernest Hemingway edota William Faulkner-ekin batera. Berak idatzitako eleberria da "Manhattan Transfer", XX. mendeko literatur lan aipagarrienetako bat. Bertan, aurreko mende hasierako New York-en berri ematen zaigu; hiriaren berri eta bere baitan bizirik irauteko ahalegina egiten ari diren biztanleena. Jatorri portugeseko idazleak teknika berritzailea erabili zuen, irakurlea batetik bestera eramaten duelako metropolian zehar kontakizun ildo zehatz bat jarraitu gabe eta gertaerak kamara zinematografiko batekin hartuko balitu bezala. Kamara horrek egunkarien lehen orriak, orduan modan zeuden abestiak... jasotzen ditu eta horiek ere narrazioan txertatuta daude. "Manhattan Transfer-en" eleberrigilearen kezka sozialak ageri dira eta ez du ezkututzen bere samina kapitalismoak jende xehearengan sortzen dituen ondorioengatik. John Dos Passos-ek EEBBetako historia garaikidearen errepassoa egin zuen ondoren ere "USA" izeneko trilogian. Trilogia hori "The 42nd Parallel", "1919" eta "The Big Money" noblek osatzen dute.

Jon Eugi



"Hobby gisa hartu nuen baina atek irekitzen ari zaizkit eta lanbidea izatea"

Dieta berezirik egiten duzu?

Ez. Geldi geratzen ez naizenez ondo mantentzen naiz. Egia da fisikoak izugarritzko garrantzia daukala eta zaindu beharra dagoela.

Ondo dantzatzeko laguntzen al du juerga batean?

Lagunekin ateratzen naizenean asko lotsatzen naiz dantza egiterakoan, klasean oso desberdina da. Hala ere, klaseetako lagun batzuk Donostiara joaten gara saltsa dantzazera ostiral gabetan edo larunbatetan eta hemen ez naiz lotsatzen mundu guztia dantzan dagoelako.

"UPA dance-eko arduradunak esan zidan harrigarria zela 3 urte dantzan ibilita horrelako trebetasuna izatea"

Gazte Informa

Kultur etxera sartu bezain laster Gazte Informazioko panela ikusi dut, poliki-poliki igo ditut egurrezko eskailerak eta 2. solairuraino abiatu naiz atea parez pare zabalik topatu dut, barrura sartzera gonbidatuz. Liburuz eta artxiboz betetako apalak, horman zintzilikatutako hamaika poster, mahai borobil handi bat, 2 ordenagailu.

Honelakoa da Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoa, herriko gazteei zuzendutako doaneko informazio zentroa, alegia. Agian gazte gehienok ez dakigun arren, bulego honek 2 urte baino gehiago daramatza zabalik eta denborarekin joan da gaur egun duen itxura hartzen. Bertan mota guztietako informazioa dago, hurbiltzen den ororen eskura jartzeko. Bi dira bulegoaren betebeharrak: informazioa eskaintzea eta karneten kudeaketa. Lan bila, zerbait ikastekotan edo zure denbora libreko alternatiba bila bazabiltza, hurbildu zaitetz bertara!



MOTA GUZTIETAKO INFORMAZIOA

OPOSAKETAK

LANA

BEKAK

LEHIAKETAK



Oposaketa, lana, beka eta lehiaketei buruzko dosierak iristen dira astero Gipuzkoako Gazte Informazioko Lurralde Zentrotik. Interesa duten gazte guztientzako lanabes baliagarriak eta eraginkorrak sortzea eta doaneko eta interes handiko zerbitzu bat eskaintze dira helburuak. Askotan, informazio guzti hori iturri ezberdinetan bilatzea lan astuna gerta liteke eta hori dela eta, deialdi guztiak txosten ezberdinetan bilduta eta behar bezala klasifikatuta daude.

Berebiziko garrantzia dauka LANAREN DOSIERRAK. Izan ere, asteburuan zehar prentsan argitaratzen diren lan eskaintza guztiak bilduz, txosten bat iristen da asteazkeneko gazte informazioko bulegora.

Lana bilatzeak duen zailtasuna arintzeko helburuarekin, lan eskaintzak lanbide mailaren arabera klasifikatzen dira: merkataritza, elektrizitate, lizentziatuak, diplomatuak, garraioak, ostalaritza-merkataritza, etab.

azio BULEGOA

INFORMAZIO IRAUNKORRA

- IKASTAROAK
- AISIALDIKO JARDUERAK
- GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK
- INFORMAZIO TURISTIKOA
- BOLUNTARIOTZA
- AUZOLANDEGIAK
- ATERPETXEAK
- UDALEKUAK

BEHERAPENAK LORTZEKO TXARTELAK

Bidaiatzerakoan, erosketetan, ostatuetan eta kultur jardueretan beharpenak lortzeko txartelak lor daitezke Kultur etxeko Gazte Informazio Bulegoan.

- NAZIOARTEKO IKASLE TXARTELA
- NAZIOARTEKO GAZTE TXARTELA
- ATERPEKIDE TXARTELA
- IRAKASLE TXARTELA



INFORMAZIOA ESKU-ESKURA

1. BULEGOKO KONTSULTAK

Bertara azalduta edo telefonoz.

Ordutegia: astearte-ostiral 16:30-20:00

Telefonoa: 943 74 14 61

2. PANELA

Kultur Etxean atea zabaltzean parez-pare

Edozein momentutan kontsulta daiteke. Beken, sarien, ikastaroen, jardueren eta lan eskaintzen berri ematen da bertan, gazteek asteroko deialdiak eguneratuta eduki ditzaten.

3. BARREN

Barrenen Gazte Informazioak zutabe bat dauka, agurren ondoan. Hemen astero heltzen diren dosierren laburpen txiki bat azaltzen da

4. INTERNET BIDEZKO KONTSULTAK

Elgoibarko www.elgoibar.org web gunean, laburpen hori aurki daiteke, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Bestalde, email bidezko kontsultak egiteko aukera ere eskaintzen du Gazte Informazio Bulegoak:

elg.gzerbitzua@terra.es

U nai Villenak irailetik darama Ibon Arriolak utzitako bulegoko arduradun lanetan. Komentatu digunez, bere erronka nagusia bulegoaren erabilera bultzatzea izango da. Horretarako publizitate kanpaina prestatzen ari da; bere asmoen artean, bulegoak zabaldu zenetik orain arte eduki duen informatzeko funtzioaz aparte, gazteei interesgarri zaizkien gaietarako hitzaldi, diapositiba emanaldi eta abarrak antolatzea da.

Unaien esanetan, "jende asko lehenengo aldiz etorri eta dauan informazio piluaz harrizten da, bestela Donosti edo Bilbon in bihar izaten zian kontsultak hemen erantzunda geratzen dia".

Edozein motatako informazioa behar duzula, jo Gazte Informazio Bulegora duda barik. Atsegin handiz atendituko zaituzte.

lots@gabe

Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARREnera. Animatu!

@ Nola deitzen dizute lagunek?

Ainho, Jai, Jaino eta batek edo bestek Mendi.

@ Zer da dirua?

Eduki in bihar da jakiteko zer dan!

@ Amorratzen zaituen zerbait?

Bertso bat itxen hastia eta ez bukatzia.

@ Sinisten ez duzun zerbait?

Evax-eko anuntziuan agertzen dan neskiak reglia dakanian "me gusta ser mujer" esaten dabanian.

@ Mutil perfektua osatzeko, noren gorputza?

Alberto Iñurrategina.

@ Eta noren irribarrea?

Unax Ugaldereña.

@ Ezkontzaz zein iritzi?

15 urte barruko lotsagaberako badakazu galdera bat!

@ Zer eskatuko zenioke Doraemoni?

Irganera joateko makina.

@ Zer ikustea nahi duzu ba iraganean?

Txirrita bertsotan!

@ Kotxe gogokoena?

Karnetakin datorrena.

@ Amesgaiztorik?

3 lagunek arruinatzen nautenekua.

@ Zer da lagun bati eskatzen diozuna?

Behin lagun danian, bertsotan itxia.

@ Pelikula bateko esaldiren bat aipatzekotan?

"Jada ez naiz mundu hau aldatzen saiatuko, soilik bertan bizitzen baizik".

@ Nola imajinatzen duzu zure burua zahartzaroon?

Zimur asko izatia da normalena, ez?

@ Goizean pentsatzen duzun lehenengo gauza?

Joe! Ya?

@ Zure bizitzako azken egunean zer egingo zenuke?

Biziiii!!



gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

Handia izandakoan... fisioterapeuta izan nahi dut



SARE GURRUTXAGA

Ezaguna egiten zaizue Sare Gurrutxagaren aurpegia, ezta? Normala! San Migelgo neska ezagunena baita bera! Hamaika aldiz agertu da Barrenen literatur sariren baten ez bazen, eskubaloiko komerietan. Baina gaurkoan ikasketez galdetu diogu, izan ere, 3 urte daramatza Salamankan Fisioterapia ikasten. Beno, ikasi ikasi ez dakigu, baina ziur Salamankako tabernarietara ere ezaguna egiten zaiela juergazale honen aurpegia!

Zergatik aukeratu zenuen Salamankara joatea?

Euskal Herrian karrera hau ikasteko aukera ez dagoenez, kanpora joan beharrean aurkitu nintzen, eta aukera bat baino gehiago nuen arren, (Zaragoza, Kataluina, Oviedo, Galicia....) Salamankak unibertsitate mailan duen ospeak konbentzitu ninduen.

Salamanka hiri unibertsitarioko omen da, nolako giroa dago?

Salamankari bizitza ikasleok eskaintzen diogu nolabait, berez bertako jai giroa, zalaparta, mugimendua nabariak dira. Bestalde, hiri

oso kulturala da, eta jendea asko gustatzen zaio.

Gainera, jendea dagokionez aniztasun handia dago: Espainiako puntu guztietako gaztea, "Erasmus" atzerritarak, eta nola ez, euskaldunak ere nonahi!!!!!!

Zergatik aukeratu zenuen karriera hau?

Osasun alorreko zerbait ikastea nahi nuenez, aukerak ikusi nitueanean, nahiko mugatuta geratu zitzaizkidan bideak, eta fisioterapia erakargarria zirudien. Jende askok masajeetan bakarrik erlazionatzen du fisioterapia, baina 3 urte hauetan eremu askotara zabaltzen dela erakutsi digute (kirola, errehabilitazioa, inkontinentzia, arazoak, ebakuntzen aurrea eta ondorena, haurren garapen arazoak etab. luze bat).

Teoria ala praktika gustatzen zaizu gehiago?

Teoria asko ematen dugu, baina praktikak ere: ospitaleetan, asoziazioetan, gure artean.... 3. urteko lau hiruhilabeteetan baino ez dira egiten praktikak.

Nota altua behar da karrera hau ikasten hasteko, ezta?

Bai, sartzeko nota 8 da.

Zenbat urteko karrera da?

Diplomatura denez, 3 urte.

maitasuna laztana
pornografia ORGASMOA
penetrazioa sexualita-
masturbazioa



Eli Moreno
SEXOLOGOA

ORGASMOA DEITZEN DEN HORII!

“Ez zarela zure bikotearekin batera orgasmora heltzen? Orgasmora heltzeko zailtasunak dituzula? Zure orgasmoak segundu gutxi irauten dituela? HEMEN DAUKAZU ERANTZUNA! Lehenengo zure bikoteari lepoan horzkada txiki batzuk eman eta eskuekin bularrak masajeatzen dituzun bitartean hankak elkargurutzatu.

Ondoren, honek 12 segundu iraun beharko du, pasara...”

Hainbat liburu eta aldizkarietan aurkitzen ditugu mota honetako kontseiluak eta aginduak. Gutako asko gutxi hau praktikan jartzen ahalegintzen gara, gure sexu harremanak edo behintzat gure orgasmoak hobetu egingo direlakoan, baina zoritxarrez okertu egiten dira. Gehiago sentitu beharrean gutxiago, gutxi irauten bazuen orain ez da existitzen, bikotearekin haserre pausoak ez dituelako

bete... Kontseilua jarraitu aurretik zailtasunak geneuzkan eta orain EZ DAKIGU ZER EGIN!

Zer pentsatzen duzue, beharrezkoa da orgasmora heltzea? Orgasmo simultaneo existitzen da? Lortu daiteke? Orgasmo desberdinak daude? Erantzutera animatzen bazarete edo zuen iritzia ematera edo esperientzia kontatzera: biluzikzerbitzua@yahoo.es

sexualitatea
konplejurik gabe

Biluzik Sexologia Zerbitzua (Astelehena 17:00-20:00)

Gazte Informazio Gunea. Kultur Etxea. Bigarren solairuan. Tel. 943 74 14 61.

FISIOTERAPIA
ZENBAT URTE?
3 urteko karrera
IKASGAIK
Anatomia
Biomekanika
Fisiologia
Arnas-fisioterapia
Neumatika
Traumatologia
Neurologia
Patologia medikoa
Patologia kirurgikoa

kontzertuak

URTARRILA

23 barixakua

BILBO

22:00 Paul Lamb & The King Snake
eta Travellin' Brothers

Kafe Antzokian

24 zapatua

BILBO

22:00 Medina Azahara

Kafe Antzokian

26 astelehena

BILBO

22:00 Dave Hillyard & Rocksteady 7
eta The Half Chicken Project

Kafe Antzokian

30 barixakua

BILBO

22:00 Sonora Djembe

Kafe Antzokian

OTSAILA

5 eguena

BILBO

22:00 Albert Pla

Kafe Antzokia

6 barixakua

BILBO

22:00 Albert Pla

Kafe Antzokia

11 eguaztena

BILBO

21:00 Real Mackenzies

Kafe Antzokia

12 eguena

BILBO

22:00 La Fuga

Kafe Antzokia

13 barixakua

BILBO

21:30 The Selecter

Kafe Antzokia

BEKAK

Bibliografia

Sancho el Sabio Fundazioak Jesus Olaizola bibliografiako beka antolatu du. Bekaren xedea euskal bibliografiaren inguruan ikertzea izango da, gaia librea, beti ere, euskal kulturaren edozein adierazpenari buruzko bibliografia edota dokumentazioa berreskuratzeko bada. Beka Diplomatu eta lizentziatuei zuzenduta dago (pertsona bakar bati edo ikerketa-talde bati eman ahal izango zaio), 10 hila-beteko iraupena izango du eta 6.010 euroko dirulaguntza. Epea: urtarrilak 30

University of Oxford

Oxfordeko Unibertsitateak Linares Rivas beka antolatu ditu Espainiar Estatuko edozein unibertsitateko ikasle edo graduatu berriei Erresuma Batuan urtebetez ikasteko aukera emateko. Beka ikasketei eta mantenuari dagozkien gastuak ordaintzeko izango da. Eskatzaileek "Scholarships and Bursaries for International Students" delako formularioa bete behar dute. Betetzeko moduari buruzko xehetasunak web-orrian ikus daitezke. Epea: urtarrilak 31
<http://www.admin.ox.ac.uk/gsp/finance/euro.shtml#lina>

LEHIAKETAK

Ipuinak

Gordexolako Kultur Etxeak "XVI. Gordexolako Harana" saria antolatu du. Bertara 6 eta 30 urte bitarteko gazteek aurkez ditzakete euren gai libreko ipuinak. Bi modalitate: euskara eta gaztelania, modalitate bakoitzeko 5 kategoria (6-9, 10-12, 13-15, 16-20 eta 21-30 urte bitartekoak). 2.200 euro saritan. Epea: urtarrilak 30

Fantasiako film laburrak

Extremadurako "el Banquete de los Mendigos Producción Audiovisual"ek, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren VII. Astearren barnean fantasiako film laburren lehiaketa antolatu du. Film laburrak bideo-formatuan (VHS) aurkeztu behar dira, grabaketako edo filmaketako jatorrizko formatua zein den kontuan hartu gabe. Fikziozko lan bakarra onartuko da (ez dokumentala, ezta animaziozkoa ere) egile bakoitzeko. Aurkeztutako film laburrek 2002ko urtarrilaren 1aren ondoren ekoiztuak izan behar dute eta gehienezko iraupena 30 minutukoa izango. Epea: urtarrilak 31

IKASTAROAK

Prestakuntza foroa

Bolunta boluntariotza eta elkarreentzako agentziak, otsailetik ekainera bitarteko prestakuntza foroa antolatu du. "Kultura arteko hezkuntza", "Animazio jarduerak gaitasun urriko pertsonekin", "Nerabezaroa: betiko gatazka" eta luzera ezberdinetako beste hainbat ikastaro interesgarri eskaintzen ditu Bilbon, otsailetik ekainera. www.bolunta.org

Ermua

Torreta Etxeak (Ermuko gazteentzako informazio bulegoak) otsailean hasi eta martxoaren bukaerara bitartean iraungo duten ikastaro ezberdinak antolatu ditu. Eskulanak, Funky-jazz, Ezagutze pertsonaleko ikastaroa eta Zura lantzeko ikastaroa. Epea: plazak agortu arte

Psikomotritzitatea eta musikoterapia edadetuekin

Hezkide eskolak edadedun pertsonekin lan egiten duten profesional, begirale, klinika-laguntzaile, psikologo, gizarte- eta kultura-sustatzaile, hezitzaile eta abarri zuzendutako "Psikomotritzitatea edadedun pertsonekin" eta "Musikoterapia edadetuekin" izeneko tailerrak antolatu ditu UNEDen Bergarako egoitzan. 12 orduko ikastaroak izango dira, martxoaren 5etik 6ra eta 8tik 10era hurrenez hurren. Epea: urtarrilak 31. www.hezkide.org



OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 23 Ibañez
- 24 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 25** Fernandez
- 26 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 27 Fernandez
- 28 Yudego
- 29 Zabaleta
- 30 Etxeberria
(Errosario kalean)

GAUEZ

- Ibañez
- Fernandez
- Fernandez
- Etxeberria
- Fernandez
- Yudego
- Zabaleta
- Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABAETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

25 domekia Doña Mercedes

HITZALDIA



ANTOLATZAILEA
KIMETZ ELKARTEA

ELA - LAB
EUSKAL HERRIKO
EGOERA
SOZIOPOLITIKOAREN
AURREAN

HIZLARIAK

- **JOSE ELORRIETA (ELA)**
- **RAFA DIEZ (LAB)**

OSTEGUNA 29
19:30etan
KULTUR ETXEKO
HITZALDI GELAN

Bigarren urtez jarraian jantzi zuen Txapela Eguskizak Euskadiko Lau eta Erdiko Elite Txapelketan

Bestalde, Ubera eta Bengoetxea nagusitu ziren San Anton Txapelketan

Afizionatu mailako pilotaririk onentsuenak ikusteko aukera izan zuten San Anton egunez ikastolako frontoira hurbildu ziren zaletuek. Aprobetxatu beharreko aukera zen eta armailak jendez gainezka egon ziren. San Anton Txapelketako promesa mailako pilotariak kantxaratu ziren lehendabizi. Herritarrek eta Mendarotik hurbildutako jarraitzaileek Eneko Ulazia, Lagunak Pilota Eskolako pilotari mendaroarra, txapela jantzen ikusteko gogoia zuten, tamalez, ezin izan zuten ikusi. Oier Mendizabal atzelari hernaniarra lagun zuela jokatu zuen eta ondo aritu ziren partidaren lehen zatian, 19 eta 14 irabazten joan baitziren, baina Olaetxea eta Merino partiduan sartu ziren eta markagailuari buelta ematea lortu zuten. 22 eta 20 irabazi zuten. Mendizabal aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena.

Haurdun dauden emakumeentzako uretako ariketak Olaizaga Kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak uretako ariketei buruzko ikastaroa antolatu du. Haurdun dauden emakumeei zuzenduta dago, eta Olaizaga kiroldegian izango da. Ikastaroa otsailaren 3an hasiko da, eta urte osoan izango du jarraipena. Astearte eta ostegunetan emango da, goizeko 8:00etatik 9:00etara. Hiru hilabete baino gehiago haurdun daramaten emakumezkoek parte hartu ahal izango dute eta datu hori egiaztatu ahal izateko sendagilearen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko kirol-txartela aurkezten dutenek, abonatuak alegia, 60 euro ordainduko dute hileko, abonatuak ez direnek, berriz, 80 euro.



San Anton Txapelketako finalak jokatu zituzten pilotariak eta antolatzaileak.

Ulaziarri dagokionez, urduri jokatu zuen eta ohi baino gutxiago eman zion pilotari. ETBko kamarak bertan egoteak eta frontoia beteta ikustekak inpresioa egin ziotela dirudi.

Jaialdiko bigarren partiduan Lau eta Erdiko Elite Euskadi Txapelketako irabazlea erabaki zen. Iaz moduan Andoni Eguskiza zornotzarrak jantzi zuen irabazlearen txapela. Beñat Sorarrain izan zuen aurrean, baina alkizarra ez zen arerio izan zornotzarrarentzat eta 22 eta 10 irabazi zion. Beraz, irabazle bakarra ezagutu du oraingoz Elite Euskadi Txapelketak.

San Anton Txapelketako nagusien mailako finalak izan zuten emozio gehien. Bengoetxea eibartarrak eta Ubera II elgetarrak eraman zuten partiduen pisua, baina alde handiegirik atera gabe. 21 eta 15 irabazten joan ziren, baina Dominguez eta Altuna ez zeuden amore emateko eta 21na berdintzea lortu zuten. Dominguezek, ordea, pilotari batek inoiz egin ezin dezakeena egin zuen, sakean huts egitea, alegia, eta egon litekeen tantorik erabakigarrienean, azken sakean. Kostako zaio donostiarrari azken tanto hura ahazten.



Jende asko hurbildu zen Ikastolako frontoira.

Eguskizak (garaikurrarekin) 22 eta 10 irabazi zion finala Sorarraini (atzean).



Agiñatik Mandubirako travesia izango da Morkaiko Mendizale Taldearen urteko lehen irteera

Urtarrilaren 31n, zapatuan, izango da Morkaiko Mendizale Elkarteak 2004 urterako prestatu duen lehen irteera. Mendi irteeren egutegiarekin hasteko Agiñatik Mandubiara bitarteko travesia aukeratu dute. Lau edo bost ordu inguruko travesia lasaia da, edozein mendizalek egiteko modukoa. Bidean Samiño eta Izazpi gailurrak pasako dituzte. Eguraldia lagun bista paregabea ibilaldia da:



Erlo, Ernio, Aralar, Aizkorri eta Anboto moduko gailurrak ikus baitaitezke bidean. Dena ez da mendian ibiltzea izango, ordea, eta indarrak berreskuratze aldera babajana izango da Beizaman. Menuak entsalada, babak bedeinkazio guztiekin eta

postrea izango ditu, dena sagardoz eta ardoz bustia. Autobusa eta bazkariaren prezioa 24 eurokoa da (30 euro bazkide ez direnentzat). Autobusa goizeko 8:00etan irtengo da Plaza Handitik. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 29a, osteguna, izango da.

Kirol materialak euskaraz sortzeko beken XIV. edizioa aurkeztu dute "Kirola Euskaraz" programaren barruan

Debarroko udalek bultzatutako "Kirola Euskaraz" programaren barruan, martxan jarri da oinarriko kirol-materialak euskaraz sortzeko beken XIV edizioa. Beka horiek jaso nahi dutenek bi arlotako fitxa didaktikoak egin beharko dituzte: alde batetik, "spinning"-ari (gimnasiako ziklismoa) buruzkoa, eta bestetik, elbarrituentzat egokitutako kirolari buruzkoa. Proiektu hauek aurkezteko epea datorren urtarrilaren 30ean bukatuko da.

Beka bakoitzak 3.000 euroko ordainsaria izango du. Beka horietan parte hartu nahi duten pertsonak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza, 20570 Bergara) bidali beharko dituzte eskabideak eta proiektuak.

"Kirola Euskaraz" izeneko programa Debarroko hamalau udalek bultzatzen dute, eta aurtengoa, programaren XIV edizioa da. Horren helburua kirola egitera bultzatzea eta kirol materialak euskaraz sortzea da. Jarduera hori urtero burutzen da, duela hamar urtetik



hona, monitore eta entrenatzaile euskaldunak prestatzeko beharrak eta kirol arloko euskarazko materialaren eskasiak bultzatuta.

Orain arte, argitaratutako fitxetan honako gai hauek landu dituzte: futbola, eskubaloia, saskibaloia, igeriketa, tenisa, aerobika, herri kirolak, kirol alternatiboak (I eta II). Azkenaldian argitaratu diren fitxak "Kirol alternatiboak III" eta "Yoga eta erlaxazioa" izan dira. Fitxa horiek eskuragarri daude Udala Kirol Patronatuan.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 0 Trintxerpe 1 (Pref.)
Elgoibar 1 Zumaiko 1 (1. erreg.)
Euskalduna 1 Elgoibar 3 (Jub.)
Elgoibar 4 Aitzgorri 0 (Inf.)
Aretxabaleta 3 Elgoibar 5 (Aleb.)
Almen 3 Elgoibar 1 (Neskak)
Elgoibar 7 Urki 1 (Neskak F-8)

Esku pilota

San Anton Txapelketa
Ulazia/Mendizabal 20 Olaetxea/Merino 22 (Promesak)

Dominguez/Altuna 21 Uberall/Bengoetxea 22 (Nagusiak)

Lau eta Erdiko Txapelketa
Eguzkitza 22 Sorarrain 10

Udaberri Saria
Lagunak A 22 Behar Zana 16 (Nag.)

Lagunak 8 Aæorga 22 (Jub.)
Eibar 18 Lagunak A 22 (Kad.)

Olalde 10 Lagunak B 22 (Kad.)
Gipuzkoako Txapelketa

Aloæa Mendi 3 Lagunak 18 (Inf.)

Areto Futbola

Inter Intxaurren 3 - Kenci Elg. 4 (Nazional B)
Lanbroa 6 Escolapios 2 (2. maila)
Magefesa 2 San Juan 6 (Jub.)
Rotulos Martin 8 - Lojantzi 3 (Jub.)

Eskubaloia

Pneumax Elg. 22 Arrate 41 (Kad. mut.)
Tecnomeca Elg. 13 Arrate 33 (Kad. mut.)
Tecnifuelle Elg. 24 Urduliz 27 (Senior mut.)
ANTT Softlan 28 Groseko K.E. 27 (Sen. mut.)
Ermua 12 Pagoaga Elg. 15 (Kad. nesk.)
Ermua 19 Cometel Elg. 18 (Jub. nesk.)

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapata, 24
16:00 Kenci Elg. Santurtzi (Nazional B)
Domekia 25
11:30 Magefesa San Jorge (Jub.)

Futbola, Mintxetan

Zapata, 24
18:15 Elgoibar Ondarroa (Jub.)
Domekia, 25
10:30 Elgoibar Zumaiko (Aleb.)
12:00 Elgoibar Urki (Neskak)

Esku pilota

Barixakua, 23
22:00 Lagunak B Elordi-Herrigintza (Kad.)
22:45 Lagunak A Bergara (Kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapata, 24
17:30 Tecnomeca Elg. Escolapios (Kad. mut.)

Lana

ESKAERA

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

ESKAINZA

◆ Kamareroa behar da. ☎ **943 74 42 65**

◆ Kamareroa behar da. ☎ **943 03 01 50**

◆ Elgoibar-Eibar ingurunerako banatzailea behar da. Orduka. ☎ **607 46 80 14**

◆ Emakume bat behar da 2 ume eskolara eramateko. ☎ **943 74 07 73 - 653 70 36 60 (20:00-21:30 artean deitu)**

◆ Kamareroa behar da, jardunaldi osoz lan egiteko. Urtarrilean hasteko. ☎ **652 77 82 10/ 652 77 82 60**

◆ Esperientziadun kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ **670 25 04 29**

◆ Pertsona bat behar da arratsaldez haurrak zaintzeko. ☎ **627 96 58 45 (Nerea)**

Etxebizitzak

◆ Pisu salgai Plaza Txikian. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Oso polita. Berritua. 2 logela. Dena kanpora begira. ☎ **646 50 28 66**

◆ Pisu salgai Santa Ana kalean. ☎ **625 70 94 44/625 70 94 45**

◆ Donostiako Antiguoa auzoan atiko polit bat salgai. ☎ **629 53 40 94**

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

◆ Etxea salgai erdigunean. 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbarra. Altzariekin. ☎ **943 74 23 21**

◆ Neskak pisua edo apartamentua hartuko luke alokairuan Elgoibar, Mendaro edo Altzolan. ☎ **696 79 25 83**

◆ Bi logela alokatzen ditut Sigman. ☎ **659 627 356**

◆ Logela alokatzen da sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. ☎ **943 74 88 53**

◆ 90m²ko etxebizitza salgai Arregitorren. 3 logela, bi bainugela. Guztiz berritua. ☎ **616 78 51 20 (arratsaldez deitu)**

◆ 62m²ko apartamentua salgai Ubitarten. Eguzkitsua eta berritua. ☎ **696 74 91 59**

◆ Logela alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Bestelakoak

◆ Txikipark traspasatzen da Eibarren. ☎ **653 733 759**

◆ Artzai txakur euskalduna oparitzen dut ezin dudalako zaindu. Urte eta erdi dauka. Baserritar betek edo pertsona arduratsu batek hartzea gustatuko litzaidake. ☎ **677 09 70 15**

◆ Fisioterapia zerbitzuak eskaintzen ditut etxez-etxe. ☎ **630 97 85 49 (Olatz)**

◆ Gabon ostean, norbaitek bi opari laga zituen ahaztuta plastikozko poltsa batean San Lazaro Egoitzan.

◆ Abenduaren 16an, ipuin kontalariaren saioa amaitzean ume batek txamarra bat ahaztu zuen liburutegian. Txano beige bat dauka. Jabea liburutegira joan dadila jasotzera.

Salerosketak

◆ Citroen C-15 furgoneta salgai. Pintatu berria. 1000 euro. Egoera onean. ☎ **943 74 35 26/630 85 03 90**

◆ Seat Ibiza autoa salgai. ☎ **627 417 833**

◆ 90m²ko bi ohe, bi mesilla eta ermairua handia salgai Santa Ana 22an. ☎ **943 74 24 57**

◆ Ezkon soinekoa salgai. Udazkena-negua. Osagarri denak oparitzen dira. Prezioa dosteko. ☎ **646 37 59 14**

Partikularrak

◆ Ingeles Filologian Lizentziatuak klase-partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Goiz eta arratsaldez. 10 urteko esperientzia. ☎ **943 74 31 67**

Garajeak

◆ Garajea salgai Santa Ana kalean, Ametsa taberna aurrean. ☎ **943 74 05 85 - 615 70 78 57**

◆ Garajea alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**

Lokalak

◆ San Bartolome kalean lokal komertziala alokatzen da. Ez du obra beharrik. Prezio onean. ☎ **943 58 40 39 (20:00-21:30 artean deitu)**

◆ Soziedade bihurtzea gustatuko litzaidakeen lokala daukat. Bazkide izateko jendea behar dut. ☎ **943 53 16 27/686 26 27 27**



Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1
20870 Elgoibar
Tfnoa. 943 74 41 32

Makina Erremintaren Institutuak:

ADMINISTRAZIOAN lan egiteko pertsona bat behar du.

Beharrezkoa:

- euskara menderatzea
- komunikaziorako gaitasuna izatea
- office tresnen erabiltzaile izatea (word, excell, access)

Eskeintzen da:

- sei hilabeteterako lana

Interesatuak bidal dezatela CVa argazkiarekin asteartea baino lehen (urtarrilaren 27, eguerdia), bai imh@imh.es posta elektronikora, bai 943744153 fax zenbakira edo IMH posta kutxa 48 -20870 Elgoibar helbidera, gaian: "lana" idatziaz.

Agurrak

♦ Zorionak **Ion Inzausti de Luis**, atzo, hilak 22, 13 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Ane**, urtarrilaren 28an 4 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta senideen partez.




♦ Zorionak **Urko**, urtarrilaren 27an, 3 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta senideen partez.



♦ Zorionak **Aitxia**, hilaren 20an, 78 urte bete zenituelako. Iloba eta birbiloben partez, Tamara, Yeray, Yaiza eta Aidaren partez.



♦ Zorionak **Ibon**, atzo, hilak 22, 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etzekoen, eta bereziki, Aitorren partez.



♦ Zorionak **Leire Ipiña**, atzo, hilak 22, 15 urte egin zenituelako. Gurasoen eta ahizpa Aneren partez.



♦ Zorionak **Joseba Tamayo Rojo**, urtarrilaren 27an, 13 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta amamaren partez.



♦ Zorionak **Ainhoa Urbizu**, hilaren 20an, 8 urte bete zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Leire Arizmendiri**, hilaren 19an, 8 urte bete zituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **bikote!** Azkenian lortu dozue bi kandelak emendatzia, e? Muxu pare bat ikastolako laguntxoaren partez.



♦ Zorionak **Miren** eta **Asier** zuen 18. eta 24. urtebetetzean. Familiako guztien partez.

Malape **taberna**
Orain astegunetan
© malape
San Frantzisko, 60

Familia, bikote eta banakako terapia

- ▶ Harreman arazoak:
 - Familia
 - Bikotea
 - Kideak
- ▶ Jarrera arazoak
- ▶ Porrot eskolarra
- ▶ Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...

Edificio Aurrera Urtzaile kalea, 1 - **EIBAR**
Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

PSIKOLOGIA

BOSCO DEUNAREN EGUN

Elgoibarko BH Institutuan

URTARRILAK 30, barixakua

9:00 *Krosa (Mintxetan)*

9:30 *Mendi bizikleta (Mintxetan)*

10:00 *Goitibeherak (San Rokeko
aldapan)*

10:00 *Tortila Txapelketa*

11:00 *Soka tira (Mekako 3 neska
talde eta beste 3 mutilenak)*

12:00 *Futbito finala (mutilak)*

12:40 *Futbito finala (neskak)*

13:15 *Antzerkia (Arreiturreko
gimnasioan)*

14:30 *Bazkaria*

17:00 *Guass Dantzalekua zabalduko
da*

23 BARIXAKUA

19:00 **IKASTOLAKO JAIALDIA**

Ikastolako frontoian

29 EGUENA

19:30 **HITZALDIA**

Hizlariak: Jose Elorrieta eta Rafa Diez

Gaia: Euskal Herriko egoera
soziopolitiko ELA eta LAB sindikatuen
ikuspuntutik.

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

Antolatzailea: Kimetz Elkartea

HITZALDIAK

Jose Elorrieta eta Rafa Diez

Kimetz Elkartea aktualitateko gaiei buruzko hitzaldi ziklo bat antolatuko du 2004. urtean. Euskara, autodeterminazio eskubidea, egoera soziopolitiko, etab. izango dira eztabaidagai eta horretarako pertsonai ezagunak ekarriko ditu. Zikloa aste honetan hasiko da Jose Elorrietak eta Rafa Diezek eskainiko duten hitzaldiarekin. ELA eta LAB sindikatuen ikuspegitik Euskal Herriak bizi duen egoera soziopolitiko aztertuko dute. Lehenengo hitzaldi hau datorren ostegunean, hilaren 29an, arratsaldeko 19:30etan izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

IKASTAROAK

Euskara ikastaroak AEKn

Elgoibarko AEK Euskaltegiak zabalik dauka otsailerako matrikulazioa. Euskalduntze, alfabetatze, EGA eta hizkuntza eskakizunak daude ikastaroen eskaintzen barruan. Langabetu, guraso eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute eta beka lortzeko aukera ere izango dute Udalaren baldintzak betez gero. Eskolak, goizez, arratsaldez eta gauz izango dira. Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu 943 74 12 32 telefonora edo etorri Plaza Txikian dagoen AEK Euskaltegira

ESKERTZA

2004ko urtarrilaren 16an, 72 urte zituela hil zen Errenderian
JOSE MARIA ETXABE GARITAZELAIAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Igandean, hilak 25ean goizeko 11:00etan Altzolako San Juan Bautista
Parrokian bere aldeko Meza egingo da.



JAIALDIK

Jaialdi erraldoia Lehen Hezkuntzakoentzat

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak jaialdi erraldoia antolatu du Lehen Hezkuntzako haurrentzat, urtarrilaren 31n, zapatuan. Besteak beste, Magia ikuskizunak, tailerrak eta karaokea izango dira jaialdian. Ikastolako frontoian izango da 16:00etatik 19:00etara. Jaialdira sartzeko sarrerak euro bateko kostua izango du eta egunean bertan jarriko dira salgai sarrerak.

Elgoibar Ikastolaren jaialdia

Gaur, hilak 23, 19:00etatik aurrera Elgoibar Ikastolaren Haur eta Lehen Hezkuntzako jaialdia ospatuko da Ikastolako frontoian.

MENDIA

Santa Eufemia mendira irteera

Datorren igandean, urtarrilaren 25ean, Ikastolako ikasle eta gurasoentzako mendi irteera antolatu du Elgoibar Ikastolak. Santa Eufemia mendia igoko dute animatzen diren guztiak Aulesti gainetik abiatuta.

MATRIKULAZIOAK

Udal Euskaltegia

Udal Euskaltegiak otsailerako matrikulazio epea irekita dagoela jakinarazten du. Hona hemen eskaintzen dituen mailak eta ordutegiak: Behe maila: 09-15 - 11:15 / 16:00 - 18:00 / 20:00 - 22:00. Erdi maila: 14:45 - 16:15. EGA: 09:00 - 11:00 eta 14:30 - 16:30 Interesatuok pasatu Udal Euskaltegitik (Nafarroa plaza 2) edo deitu 943 742731 telefonora.

Mendaroko euskaltegia

In Leikek, Udaletxea eta AEKren laguntzaz, Mendaroko euskaltegiaren matrikulazio kanpaina berri bati hasera eman dio euskaraz batere ez dakitenei zuzendua batik bat, "0" urratsekoei alegia. Klaseak otsailetik ekainera bitartean izango dira eta printzipioz goiz, arratsalde nahiz gauz eskaintzen dira. Langabetu, ikasle, jubilatu eta gurasoek matrikularen erdia bakarrik ordaindu beharko dute eta kurtso bukaeran asistentziaren araberako beka sistema aplikatuko da. Matrikulatzen interesatua dagoena edo informazioa jasotzea nahi duena gertura dadila konpromisorik gabe In Leike Taldeak duen lokalera (Goñati pilotalekua 3. Solairua). Ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan 19:30-20:30. Edonola ere edozein zalantza duenak honako telefonora dei dezake: 605754017. Matrikulatzeko azken eguna urtarrilaren 30a, ostirala, izango da.

Helduen hezkuntza

EPA edo Helduen Hezkuntzan bigarren lauhilabeterako izen-ematea irekita dago jadanik eta urtarrilaren 30era bitartean izango da aukera matrikula egiteko. Muguruzako ikastetxe zaharrean, Usetxe kalean du egoitza EPAk. Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara egoten dira bertan. Telefonoa honakoa da: 943 74 0880. Aukera ezberdinak eskaintzen dituzte: alfabetatzea, espainiera atzeritarrentzat, kultura orokorra edo baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ere.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Love Actually"

23, barixakua: 22:15
24, zapatua: 19:30-22:15
25, domekia: 19:30-22:15
26, astelehena: 22:15

"El Cid: Kondaira"

25, domekia: 16:30

"Dias de futbol"

30, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"El tesoro del Amazonas"

23, barixakua: 19:30-22:15
24, zapatua: 17:00-19:30-22:30
25, domekia: 17:00-19:30-22:30
26, astelehena: 19:30-22:15
27, martitzena: 19:30-22:15
28, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"El ultimo Samurai"

23, barixakua: 19:30-22:15
24, zapatua: 17:00-19:30-22:15
25, domekia: 17:00-19:30-22:15
26, astelehena: 19:30-22.15
27, martitzena: 19:30
28, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



"Love Actually"

Zuzendaria: Richard Curtis.

Antzezleak: Alan Rickman, Bill Nighy, Emma Thompson.

Honakoa ez da komedia erromantiko berri bat gehiago, 10 filma erromantiko bakarren bilduta dituen filma baizik. Gaur egungo Londresen girotua dago Gabonak baino bi hilabete lehenago. Istorio hunkigarri eta dibertigarri osatua dago eta guztiak edo gehienek bat egingo dute Gabon gabeen. Argumentu argia du filmak: edozein tokitara begiratuta ere amodioa da pertsonen bizitza bultzatzen duena, amodioa da bizitzaren motorra. Berdin dio Britainia Handiko lehen ministroa, rock izarra, etxe garbitzailea edo ikastetxeko zuzendaria izan.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. Argazkia 1953. urte inguruan aterata dago San Bartolome kalean zegoen Irureta tabernan. Abenduan egon arren, aldatz gorako tarte gogor honetan, Txiki Eguna gogoratzea ondo legokeela pentsatu dugu eta egun hartan ateratako argazkia gogora ekartzea erabaki dugu.


Ikus dezagun jai giroan azaltzen den koadrila hau nork osatzen zuten:

Ezkerretik eskumara: **Angel Jauregi, Patxi Gabiola (†), Tomas Garcia (†), Iñaki Alvarez, Jesus Riaño, Valentín Peñalba, Rafael Rodriguez, ezezaguna eta ezezaguna.**




Valentín Aizpitarte Astigarraga

*Heriotzak banatu
nahi gaituen arren,
bizitzak aspaldi egin gintuen
betiko lagun.*



ESKERTZA
*2004ko urtarrilaren 8an, 81 urte zituela hil zen
SABIN GOROSTIZA ETXANIZen sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





Hidromasajea adituak



Altzariak estilo guztietan

GOKI ERREFORMAK

Olaso Poligonoa, 15
68 pabilioia
20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 74 28 80 - 943 74 42 23

943 74 46 40

Faxa: 943 74 45 87



Bainurako
osagarrietan
aukera
zabala

Ateekin ere lan egiten dugu



50 URTEURRENA ANIVERSARIO

Friondo

Hauek izan dira gure bezeroen artean egin genuen zozketako 7 irabazleak:



Kontxi Arano, Josefa Zulaika eta Elena Etxaniz.

Kontxi Arano (Elgoibar) 6.000 €

Elena Etxaniz (Elgoibar) 3.000 €

Josefa Zulaika (Elgoibar) 3.000 €

M^a Pilar Txurruka, Maria Antia, M^a Carmen Vazquez eta Josefa Prol.



M^a Pilar Txurruka (Elgoibar) 1.500 €

Maria Antia (Elgoibar) 1.500 €

M^a Carmen Vazquez (Eibar) 1.500 €

Josefa Prol (Elgoibar) 1.500 €

Zorionak irabazleei eta mila esker 50 urte betetzen lagundu diguzuen guztioi!!

Santa Ana 4 eta 6

Tel.: 943 74 12 34